

**ANEXO I**  
**ARLOAREN EDO IRAKASGAIAREN URTEKO PROGRAMAZIO**  
**DIDAKTIKOAREN EGOKITZAPENA**

**Urteko/ikasturteko programazio didaktikoaren egokitzapena**  
*Adaptación de la Programación didáctica anual/de curso*

<b>ikastetxea:</b> <i>centro:</i>	ABADIÑO BHI	<b>kodea:</b> <i>código:</i>	015071
<b>etapa:</b> <i>etapa:</i>	DBH	<b>zikloa/maila:</b> <i>ciclo/nivel:</i>	3
<b>irakasgaia:</b> <i>materia:</i>	GEOGRAFIA ETA HISTORIA		
<b>DIZIPLINA BARRUKO OINARRIZKO KONPETENTZIA</b>	Konpetentzia Sozial eta Zibikoa		
<b>DIZIPLINA BARRUKO OINARRIZKO KONPETENTZIA ELKARTUAK</b> <i>competencias disciplinares básicas asociadas</i>	Arterako konpetentzia		
<b>irakasleak:</b> <i>profesorado:</i>	Lara Arroyo Josu Zaloña	<b>ikasturtea:</b> <i>curso:</i>	2019-2020

**Zeharkako konpetentziak / Competencias transversales:**

- Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzia
- Elkarbizitarako konpetentzia
- Ekimenerako eta ekiteko espiriturako konpetentzia
- Hitzez, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko konpetentzia.
- Izaten ikasteko konpetentzia

<b>helburuak</b> <i>objetivos</i>	<b>ebaluazio-irizpideak</b> <i>criterios de evaluación</i>
<p>1. Geografia eta Historia arloen garrantziaz jabetzea. Batetik, Geografia, ingurune hurbilaren ezagutzatik abiatuta errealitate konplexuetara. Bestetik, Historia arloaren balioa, osotasunean ulertuta. Hau da, ez bakarrik gertaeraren ezagutza hutsa modura, baizik eta, gaur egungo errealitatea ulertzeko eta azaltzeko elementuak aztertuz.</p> <p>2. Parte-hartze aktiboa eta gainerako pertsonetikiko errespetuzkoa izatea, besteen iritziak era egokian entzunez eta norberaren akatsak zuzenduz, gelan elkarbizitza egokia sustatzeko eta, era berean, gizartea eraikitzen laguntzeko.</p>	<p>1. Geografia eta Historiarekiko interesa eta jakingura erakustea eta bi zientzia horiek mundua ulertzeko orduan duten garrantzia balioestea.</p> <p>2. Eztabaidetan parte hartzea, horretarako, iritzi arrazoituak garatzea, Gizarte Zientzietan oinarritutako arrazoiak emanik, gainerako iritziak errespetatzea eta ondorio komunak lortzen saiatzea.</p> <p>3. Gizarte Zientziei dagokien lexikoa ulertu eta erabiltzea.</p>

<p>3. Ikasitako edukiei buruzko lexiko berezia menperatzea eta erabiltzea, definizioak landuz, informazio zehatza eta argia erabiltzeko eta era egokian ikasteko edota transmititzeko.</p> <p>4. Erregimen demokratikoen jatorria, antolamendua, funtzionamendua eta horien ezaugarri eta oinarri diren printzipio nagusiak aztertzea, funtsezko balio demokratikoak aintzat hartuz eta herritarren eskubideei eta askatasunei erreparatuz; helburua gizartean parte hartze arduratsua, kritikoa eta erabatekoa bultzatzea da, eta eskubiderik edo baliabiderik gabeko herri, talde sozial edo pertsonen aldeko jarrera sortzea.</p> <p>5. Espainian eta Euskal Herrian antolaketa politikoa nola gauzatzen den aztertzea, sortzen diren gatazkei erreparatuz, norberaren bizitzako eta gizarte-bizitzako ekintzei eta egoerei buruzko iritziak sortzeko, eta gizarte demokratikoetan modu arduratsu eta kritikoa parte hartzeko.</p> <p>6. Europako erakundeak eta haien antolaketa politikoa eta administratiboa ezagutzea, erronka nagusiak aztertuz, Europar Batasuna Europako herrien eta nazioen harreman- eta partaidetza-esparrua dela ulertzeko eta hobetu beharraz jabetzeko.</p> <p>7. Ekonomiaren ezaugarri, eragile eta ekonomia-erakunde nagusiak ezagutzea, eginkizunari eta elkarrekiko mendekotasun hazkorrari erreparatuz, eta ezagutza hori hurbileko zenbait arazo ekonomiko aztertzeko erabiltzea, ekonomiak gizakion bizitza nola baldintzatzen duen ulertu eta gizakiaren jarduerak zer gizarte-arazo eta ingurumen-arazo sortzen dituzten ulertzeko.</p> <p>8. Nekazaritzaren oinarrizko elementuak ezagutzea eta aztertzea, munduko nekazal paisaia ezberdinak kokatuz eta ingurukoak analizatuz (Euskal Herria, Espainia eta Europar Batasuna), giza taldeek espazioa eta hango baliabideak nola erabiltzen dituzten ulertzeko eta erabilera horiek eragindako ondorio</p>	<p>4. Demokraziaren printzipioak ezagutu eta ulertzea; erregimen demokratiko eta autoritarioak bereiztea, ezaugarriak, injustiziak, giza eskubide urraketak identifikatuz eta parte hartzeko eta gizarte bizitza hobetzeko neurriak proposatuz.</p> <p>5. Espainiako eta Euskal Herriko antolaketa politikoa ezaugarri nagusiak ezagutzea, sortzen diren interes gatazkak identifikatuz, iritzi ezberdinak ulertuz eta herritarren parte hartzeko bideak bereiztuz.</p> <p>6. Europako erakundearen funtzio eta helburuak bereiztea, gabeziak identifikatzea eta hobetzeko proposamenak egitea.</p> <p>7. Ekonomiaren ezaugarri eta eragile nagusiak ezagutzea, funtzioak, loturak eta menpekotasuna identifikatzea eta hurbileko zenbait arazo ekonomiko aztertzea, eragiten dituzten ingurumen-arazo eta ondorio sozialei erreparatuz.</p> <p>8. Munduko eta inguruko nekazaritza paisaiak bereiztea eta ezagutzea, baliabideen erabilera eragiten dituen ingurumen eta gizarte ondorioak balioetsiz.</p> <p>9. Industria sektorearen ezaugarri eta mota nagusiak bereiztea eta Europako eta inguruko industria-gune nagusiak ezagutzea, jarduera honek eragiten dituen ondorioak balioetsiz.</p> <p>10. Hirugarren sektoreak gaur egungo gizarteetan duen garrantzia eta ezaugarriak identifikatzea, zerbitzu motak sailkatzea eta tertziarizazioaren ondorio nagusiak azaltzea.</p> <p>11. Munduko eremu geoekonomiko nagusiak bereiztea, bakoitzaren ezaugarri nagusiak azalduz eta ezberdintasunak identifikatzea, adierazle sozioekonomikoak erabiliz. Halaber, ezberdintasun horiek murrizteko zenbait ekintza proposatzea eta elkartasun jarrera adieraztea.</p> <p>12. Informazio geografikoa lortzea eta egoki adieraztea (ahozkoa, grafikoa, ikono bidezkoa, estatistikoa, kartografikoa). Iturri ezberdinetatik lortutako informazio hori, laburbildu, eta</p>
--	---

<p>ekonomiko eta ingurumenaren arlokoak balioesteko.</p> <p>9. Industria jardueraren oinarritzko elementuak ezagutzea, Euskal Herriko, Espainiako eta Europar Batasuneko industria-gune nagusiak kokatuz eta aztertuz, industriaren bilakaera ulertzeko eta jarduera honen arazo eta ondorioak baloratzeko.</p> <p>10. Hirugarren sektorearen jardura ezberdinen ezaugarriak ezagutzea, zerbitzu mota ezberdinak aztertuz, tertziarizazio prozesuaren garrantzia gaur egun ulertu ahal izateko.</p> <p>11. Munduko ezberdintasun ekonomikoak ezagutzea, eremu geoekonomiko ezberdinak aztertuz eta konparatuz, adierazle sozioekonomiko nagusiak erabiliz eta kontuan hartzen dituzten elementuei erreparatuz, iritzi kritikoa garatzeko eta ikuspegi arrazoitua izateko. Halaber, ekintza eraginkorrak sustatzea eta proposatzea ezberdintasun horiek murrizteko.</p> <p>12. Informazio geografikoa lortzea eta egoki adieraztea, ahozko informazioa, informazio grafikoa, ikono bidezkoa, estatistikoa eta kartografikoa eskuratuz, planifikatuz, aukeratuz eta erlazionatuz. Informazioa hainbat iturritatik lortuko dute (komunikabideak eta IKT-k barne), informazio hori laburbildu eta ondorioak besteei modu antolatuan eta ulergarrian azaltzeko.</p> <p>13. Denbora markatzeko unitateak eta kategoriak erabiltzea. Denbora lerroak irudikatuz, aro historiko bakoitzaren iraupenaz jabetzea, hasiera eta amaieraren arrazoi nagusiak jakinda, gertakizun nagusiek zergatik ematen dioten aldi bakoitzari hasiera eta amaiera jakinez.</p> <p>14. Iturri mota ezberdinak aztertuz eta alderatuz, Aro Modernoko aldaketa ekonomiko, politiko, sozial eta kulturalak jakitea, emandako aurrerapen esanguratsuenak ezagutzeko eta gaur egunera arte izandako bilakaera ulertzeko.</p>	<p>ondorioak besteei modu antolatuan eta ulergarrian azaltzea.</p> <p>13. Aro Modernoko denbora lerroa irudikatzea, gertakizun nagusiak izendatuz.</p> <p>14. Iturri mota ezberdinak aztertu eta alderatzea, Aro Modernoko gertakizun garrantzitsuak eta horien ezaugarriak ezagutzeko:</p> <p>14.1. Estatu modernoaren sorreran izandako une garrantzitsuenak bereiztea.</p> <p>14.2. Estatu modernoak eta monarkia autoritarioek arlo guztietan (politikoa, ekonomikoa, soziala eta kulturala) izandako garapena eta erabateko finkatzea ezagutu eta aztertzea.</p> <p>15. Aro Modernoan Euskal Herrian eta Espainian emandako gertaera historikoak ezagutzea.</p> <p>15.1. Monarkia hispanikoaren eta Espainiako inperio kolonialaren ezaugarri nagusiak adieraztea aldi horretako testuinguru europarraren barruan.</p> <p>15.2. Aro Modernoan zehar Euskal lurraldeen bilakaera politiko, ekonomiko eta soziala ezagutzea.</p> <p>16. Aro Modernoko estilo artistiko nagusien oinarritzko ezaugarriak identifikatzea, sortu ziren garaiaren testuinguruan barneratuz, eta ezagutza hori garai horietako artelan garrantzitsu eta adierazgarrienetako batzuen azterketan aplikatzea. Baita ondare kultural eta artistikoa balioetsi eta errespetatzea ere.</p> <p>17. Iturri ezberdinak aztertuz, gertakizun historikoen arrazoi eta ondorioak ezberdintzea eta gertakarien kausa anitzez jabetzea.</p> <p>18. Emakumeek historiaren bilakaeran egindako ekarpena aintzat hartzea.</p> <p>19. Oinarritzko testu historikoak aztertzea.</p> <p>20. Irakurketak edukien barneratzean nola lagun dezakeen ulertzea eta bere garrantzia balioestea.</p>
--	---

<p>15. Aro Modernoan Euskal Herriak eta Espainiak izandako gertaera historikoen prozesuak ezagutzea eta denboran eta espazioan kokatzea, ezaugarri orokorrak gure lurraldean nola gauzatu ziren konparatuz eta aztertuz, Europako historiaren testuinguruan kokatzeko.</p> <p>16. Iturri ikonografikoak aztertuz, Aro Modernoko estilo artistikoen ezaugarri nagusiak jakitea Historian izandako adierazpen artistikoak baloratzeko eta gaur egun daudenekin alderatzeko.</p> <p>17. Iturri ezberdinak aztertuz, gertakizun historikoen arrazoi eta ondorioak identifikatzea elkarren arteko loturaz jabetzeko eta gertaera historikoetan parte duten zergatiak anitzak direla ikusteko, topikoak apurtzeko asmoz, aniztasunaren balioaz jabetzeko.</p> <p>18. Iturri ezberdinak erabiliz, emakumearen presentzia Historian nolakoa izan den aztertzea, gaur egungo egoerarekin alderatzeko eta honetaz iritzi arrazoitua finkatzeko.</p> <p>19. Testu historikoak landuz, ideia orokorrak identifikatzea, adierazpena eta ulermena finkatzeko.</p> <p>20. Irakurketa landuz, ulermena lantzea geografia eta historiako aspektu ezberdinekin lotura aurkitzeko eta irakurzaletasuna bultzatzeko.</p> <p>21. Gai jakin baten aurrean, informazioa bildu eta moldatu ondoren, ikaslearen iritzia finkatzea eta ahoz eta idatziz defendatzea, bai bakarka bai taldeka, autonomia pertsonala eta lankidetzaren indartzeko.</p>	<p>21. Iturri ezberdinak erabiliz informazio egokia biltzea, banaka zein taldeka lan errazak egiteko eta lan horiek, idatziz edota ahoz defendatzea.</p>
--	--

**EDUKIEN SEKUENTZIA** [denbora-tarteka, unitate didaktikoak, proiektuka, ikaskuntza-nukleoka edo beste moduren batera antolatuta...].

**SECUENCIACIÓN DE CONTENIDOS** [organización en períodos, unidades didácticas, proyectos, núcleos de aprendizaje...].

### 1.Ebaluazioa:

#### GIZA GEOGRAFIA

1. egoera arazoa garatzen du: “Jarduera Ekonomikoen Katalogoa”

Zer da Geografia: Geografiako tresnak (4 saio)

Gizarteen antolamendu politikoa. Estatuak (9 saio)

Gizarteen antolaketa ekonomikoa (9 saio)

Lehen sektorea: Nekazaritza abeltzaintza eta basogintza (9 saio)

### 2. Ebaluazioa:

2. egoera arazoa garatzen du: “AHT Euskadin....Beharrezkoa da?”

Bigarren sektorea: Meatzaritza, energia eta eraikuntza (6 saio)

Bigarren sektorea: industria (8 saio)

Hirugarren sektorea: Zerbitzuak, garraioak eta turismoa komunikazioa eta berrikuntza (12 saio)

Mundu Globalizatua, transformazioak: merkataritza jarduerak eta truke-fluxuak (3 saio) (½)

### 3. Ebaluazioa **EGOKITZAPENA**

Mundu Globalizatua, transformazioak: merkataritza jarduerak eta truke-fluxuak (3 saio) (½)

#### HISTORIA

Aro modernoa: Aro berriaren sorrera.

Erljio gatazkak: Erreforma eta kontrarreforma

Errenazimendua

Geografia-aurkikuntza handien garaia **eta monarkia hispanikoa.**

**METODOLOGIA** [edukien antolaketa, jarduera motak, baliabide didaktikoak, ikasleen taldekatzeak, espazioen eta denboren antolaketa, irakasleen eta ikasleen eginkizuna... ikuspegi inklusibo batetik].

**METODOLOGÍA** [organización de contenidos, tipo de actividades, recursos didácticos, agrupamiento del alumnado, organización de espacios y tiempos, papel del profesorado y el alumnado... desde una perspectiva inclusiva].

### **BALIABIDE DIDAKTIKOAK. EGOKITZAPENA**

Classroom bitartez ari gara klase ematen. Lanak normalean hor partekatzen ditugu ikasleekin.

Bideo- konferentziak egiteko, Google meet edo jitsi baliabideak erabiltzen ari gara. / *Se imparten las clases en Classroom y es ahí donde se entregan las tareas normalmente. Para las video-conferencias utilizamos Google meet o la aplicación jitsi*

Udako txostena eskaneatu eta Classroomen jarriko dugu. Beraiek, Drive dokumentu batean egingo dituzte lanak./Escanearemos el dossier de verano y lo pondremos en classroom. Los/as alumnos/as harán las tareas en un documento de Drive

Eskolako ikasle guztiek dute aukera online lana egiteko. Arazoren bat egonez gero aurrerago, fotokopiak bidaliko dizkiegu. *Todos/as los/as alumnos/as pueden trabajar online. En caso de haber algún problema se les darán fotocopias.*

Bestelako baliabideak:

- 3.1 GeH eta 3.2 GeH testuliburuak
- Edpuzzle (gaien gaineko bideo-arietak)
- Bideo-tutorial edo azalpenak
- ...

**EBALUAZIO-TRESNAK** [ahozko eta idatzizko probak, galdetegiak, banakako eta taldeko lanak, behaketa-eskalak, kontrol-zerrendak, ikasgelako koadernoak, portfolioa, kontratu didaktikoa...] **EGOKITZAPENA**

#### **INSTRUMENTOS DE EVALUACIÓN**

[pruebas orales y escritas, cuestionarios, trabajos individuales y en grupo, escalas de observación, listas de control, cuaderno de aula, portafolio, contrato didáctico...]. **ADAPTACIÓN**

#### **EGOKITZAPENA**

- Klasean konektatzea
- Testu liburuaren eta Classroomen bidalitako lanen eta ariketen kontrola.
- Gaiarekin lotutako idazlanak edo bestelako produktuak (buru-mapa, artelan-en fitxa...)
- Unitate bakoitzeko froga edo erronka
- Gai-atal ezberdinen gaineko test eta galdetegiak

#### **INSTRUMENTOS DE EVALUACIÓN**

##### **ADAPTACIÓN**

- Conectarse a las clases online
- Las tareas de Classroom.
- Redacciones y/o trabajos sobre el tema central de la unidad.
- Prueba online o producto de cada unidad.
- Cuestionarios y pruebas tipo-test de los diferentes contenidos trabajados.

**KALIFIKAZIO-IRIZPIDEAK** [ebaluazio-tresna bakoitzaren pisua eta balioa] **EGOKITZAPENA**

**CRITERIOS DE CALIFICACIÓN** [peso y valor de cada instrumento de evaluación].

#### **ADAPTACIÓN**

#### **EGOKITZAPENA**

-1go eta 2,ebaluazioko notak izango du pisu gehien. Horretaz gain, 3.ebaluazioko lan guztiek nota hori igotzeko erabiliko dira.

\*\*Hala ere, 1go eta 2.ebaluazioko notan eragina izan dezake 3.ebaluazioan lan gutxi egiteak, klaseetara ez konektatzeak... justifikazio gabe.

-Berreskurapenak gainditzen dituzten ikasleek 5 kalifikazioa izango dute.

-Martxoaren 13tik aurrera:

Klaseetan konektatuta eta parte hartzen egotea, puntualitatea.%20

Lanak epean entregatzea, lanen kalitatea%20

Online frogak edota entregatzeko lanak: %60

#### **CRITERIOS DE CALIFICACIÓN**

##### **ADAPTACIÓN**

-Las notas de la 1ª y 2ª evaluación tendrán el mayor peso. El trabajo de la 3ª evaluación se tendrá en cuenta para subir nota.

No obstante, influirá en la nota final el hecho de que el/la alumno/a no haya trabajado durante la tercera evaluación o no se haya conectado a las clases sin justificación aparente.

-Las/os alumnas/os que recuperen la 2ª evaluación obtendrán 5 como calificación.

-Desde el 13 de marzo:

La asistencia a las clases online, la puntualidad, participación en clase : 20%

Entrega de tareas en el plazo fijado, calidad de los trabajos:20%

Pruebas online y/o trabajos para entregar: 60%

**EBALUAZIOAREN ONDORIOAK** [indartzeko eta zabaltzeko neurriak, antolamendu-egokitzapenak eta egokitzapen metodologikoak, emaitzen analisia, plangintza didaktikoaren berrikuspena, errekupeazio-sistema...]. **EGOKITZAPENA**

**CONSECUENCIAS DE LA EVALUACIÓN** [medidas de refuerzo y ampliación, adaptaciones organizativas y metodológicas, análisis de resultados, revisión de la planificación didáctica, sistema de recuperación...]. **ADAPTACIÓN**

### **BERRESKURATZEAK / IKASTURTEKO PENDIENTEAK**

1go eta 2.ebaluazioko helburu eta edukiak hartuko dira kontuan ikasturtea gainditzeko. Beraz, hauxe izango da ikasleentzako berreskurapen sistema / *Ya que los objetivos y contenidos evaluables del curso 19-20 se han reducido a la 1ª y 2ª evaluación, el sistema de recuperación para el alumnado es el siguiente:*

Edukiak, 2. ebaluaketaraino finkatuta geneuzkan helburuak izango dira, gai horien errepeto ariketak, hemendik eta kurtso amaierara egiteko./*Objetivos planteados en la programación hasta la 2ª evaluación, trabajos de repaso de esas unidades hasta que finalice el curso.*

Momentuz ez dakigu aurrez aurreko azterketak egiteko aukerarik izango dugun ala ez, beraz ez dugu aukera hau baztertu ikasle batzuen egoerak horrela eskatzen badu. Ohiko deialdian gaindituko ez balute, ezohiko deialdian aukera izango dute gainditzeko. / *Por el momento, no descartamos la posibilidad de realizar algún examen presencial, dependiendo de la situación de algún alumno. Aquellos que no aprueben en la convocatoria ordinaria, tendrán la opción de superar la asignatura en la convocatoria extraordinaria.*

### **PENDIENTEAK / EGOKITZAPENA**

Ikuskaritzaren informazioaren zain gauden bitartean, momentuz, ezin izango dugu modu presentzian azterketarik egin. Beti bezala, landu dituzten txostenen inguruko froga bat izango da.

Bestalde, zentrura bueltatzeko aukerarik ez badago, froga era digitalean egingo da, txostenetako edukiak, hau da, aurreko ikasturteko edukiak, bereganatu diren edo ez ziurtatu ahal izateko.

*Cómo siempre la calificación sobre las asignaturas pendientes de cursos anteriores se realizará mediante una prueba.*

*Si no se dan las condiciones de realizar dicha prueba de forma presencial se realizará de forma digital / online.*

#### **Frogak formatu ezberdinetan egin ahalko dira:**

- -AURREZ-AURREKO BIDEO DEIA: Landutako ariketen galdera/azalpenen bidez. Ikaslearen ahozko adierazpena baloratzeko.

- -IKASGELA: Gai jakin baten idatzizko testuen bidez, ikaslearen idatzizko adierazpena baloratzeko.
- -GOOGLE IMPRIMAKIAK: Aurreko ikasturteko edukiei buruzko ariketak. Ikaslearen oinarriko edukien lorpena baloratu ahal izateko.

***Las pruebas podrán realizarse en diferentes formatos:***

- *Por video-conferencia: mediante preguntas y explicaciones sobre las tareas trabajadas.*
- *En clase: mediante pruebas escritas*
- *Formularios Google: mediante diferentes tareas y/o cuestionarios sobre contenidos del curso anterior.*

**OHARRAK / OBSERVACIONES**

--